



UNITATE SUSTATAILEA	Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak
XEDEA	Negozio berriak sustatzeko (EKIN) dirulaguntzen 2025eko oinarri arautzaileen eta deialdiaren onarpena. Lehia bidezkoak.
TITULARRA	Tolosako Udala

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Herritarrak Lan Esparruko zinegotzi delegatu Aitor Aguirresarobe Murgui, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela; ondoren, bi aldaketa izan ditu: bata, GAO, 68 zk., 2023-01-26an argitaratua, eta bestea, GAO, 89 zk., 2024-05-09an argitaratua.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan honako dirulaguntza lerroa sartua dago: Negozio berriak sustatzeko laguntzak (EKIN). Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023-02-01).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako hirurogei mila (60.000,00) euroko zenbatekoa finkatu da 2025eko udal aurrekontuaren 1100.471.01.431.00 partidan eta hogeit mila (20.000) eurokoa 1100.771.01.431.00 partidan.

LAUGARRENA.- Turismoa, Merkataritza eta Azokak Azpisaileko Zinegotzi Delegatuak, 2025eko otsailaren 5ean emandako Probidentzian, Negozio berriak sustatzeko (EKIN) programari buruzko dirulaguntzaren oinarri arautzaileak eta deialdia egiteko espedienteari hasiera ematea agindu zuen.

BOSGARRENA.- Turismoa, Merkataritza eta Azokak Azpisaileko arduradunak proposamen teknikoa luzatu du aipatu dirulaguntzaren oinarri arautzaileak eta deialdiaren espedienteari hasiera emateko.



SEIGARRENA.- Horren ostean, dagokien sailek eta azpisailek (Berdintasunak, Euskarak, Kontu-hartzailetzak eta Idazkaritzak) euren txostenak igorri dituzte, honako ondorioekin:

Egileak	Aldekoa / Kontrakoa / Baldintzatua	Oharra
Berdintasuna	BALDINTZATUA	Hizkera ez sexistaren erabilera errepasatzea gomendatzen da
Euskara	ALDEKOA	
Juridikoa	BALDINTZATUA	1.go orriko 4. atalean, 8. orriko 2 eta 3 puntuetan eta 15. orriko f) atalean aldaketak proposatzen dira.
Kontuhartzailetza	BALDINTZATUA	15, 16 eta 18 klausuletan aldaketak proposatzen dira.

ZAZPIGARRENA.- Txosten horietan adierazitako alderdi guztiak kontuan izan ditu Turismoa, Merkataritza eta Azokak Azpisailak eta dagozkion zuzenketak egin ditu.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela: 34) Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.

BIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 38/2003, (aurrerantzean, DLO) 9.2 artikuluan ezartzen duela: «Dirulaguntzak eman aurretik, emakidaren oinarri arautzaileak onartu beharko dira, lege horretan ezarritakoaren arabera».

Horren haritik, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 1873/2017 Epaiaaren arabera, lehiaketa-deialdien eta horien oinarrien araubide juridikoa ez dela



zeharkako aurka egitea ahalbidetzen duen xedapen orokor bat; izan ere, administrazio-egintza bat baino ez da, zehaztu gabeko interesdun-multzo bati zuzendua, legezko eta erregelamenduzko arau zehatzen eta berezien aplikazio zehatz eta bakanekoa, iraupen handia ez duenez ordenamendu juridikoan integratzen ez dena.

Beraz, oinarrien egintza-izaera ez da xedapen orokor bat, administrazio egintza bat baizik.

HIRUGARRENA.- DLOren 22.1 artikulua araber, **«dirulaguntzak emateko ohiko prozedura** norgehiagoka-erregimenean izapidetuko da. Lege honen ondorioetarako, norgehiagokatzat hartuko da aurkeztutako eskabideak alderatuz dirulaguntzak emateko prozedura, oinarri arautzaileetan eta deialdian alde aurretik finkatutako balorazio-irizpideen arabera hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuta baloraziorik handiena lortu dutenak esleitzeko, erabilgarri dagoen kredituaren barruan deialdian ezarritako mugarekin».

Salbuespen gisa, eta oinarri arautzaileetan hala aurreikusten baldin bada, organo eskudunak dirulaguntzaren onuradunen artean hainbanatuko du dirulaguntzei bideratutako gehienezko kopuru osoa.

Ezin daiteke eman deialdian zehaztutako kopurua gainditzen duen dirulaguntzarik.

LAUGARRENA.- Era berean, DLO 17.3 artikuluan adierazten direla dirulaguntzen oinarriek gutxienez jaso beharreko alderdiak zeintzuk diren. Atal horietaz gain, DOOean 19. artikuluan zehazten dira aurreko artikuluan aipatutakoei erantsi beharreko alderdiak. Horiek guztiak, lege-txostenean xedatu bezala, espedientean jasotzen dira.

BOSGARRENA.- DLOeko 8. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda, dirulaguntza lerro hau honako arrazoiengatik jotzen da intereskotzat:

Dirulaguntzaren xedea:	EKIN programaren helburua da Tolosako hiri-ekonomiako sektoreetako batean enpresaritzak ekimen bat abiarazteagatik pertsonen dirulaguntzak ematea.
Dirulaguntzarekin espero diren emaitzak:	Hiri-ekonomiaren esparruko jardura ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzea; tokiko jardura sustatzea eta indarberritzea, enpresa-ekimen berriak abiaraztea eta kale espazio hutsak dinamizatzea.
Dirulaguntzaren beharren justifikazioa:	Hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak indarberritu eta jasangarri egiteko, ezinbesteko jotzen da dirulaguntza lerro hau aurrera eramatea, bere bitartez bultzatzen baitira



	ekintzaile eta negozio berriak abiaraztea eta merkataritza-establezimenduen erakargarritasuna bermatzea.
--	--

SEIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 14.3 artikulua dirulaguntzen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzkoa dela. Zehazki, honako hau jasotzen da: oro har, eta oinarri arautzaileetan adierazitakoari kalterik egin gabe, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean, oinarri hauen arabera ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz, beste dirulaguntza konkurrente batzuk arautzen dituen araudiak horri buruz ezartzen duenari kalterik egin gabe.

ZAZPIGARRENA.- Oro har, oinarri arautzailean eta deialdian, xedatzen denari kalterik egin gabe, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrarekin bat etorrita ematen diren dirulaguntzak bateragarri izango direla helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe beste dirulaguntza horien araudiak horri buruz agindu dezakeenari. Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa kasuetan honako baldintza hauek bete behar dira:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua. Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta haien jatorria adierazita daudela.

Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan. Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, eskatuko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

ZORTZIGARRENA.- Oinarri arautzaileek DLOren 17.3 artikuluan ezarritako edukia izan behar duela ezinbestez, eta deialdiak berriz DLOren 23.2 artikuluan eta DOOren 19. artikuluan ezarritakoa. Gainera, DLOren 18. eta 20. artikuluetan aurreikusitako



publizitate- eta gardentasun-betebeharrak betetzeko, argitaratu beharko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (DDBN - BDNS), zeinak dirulaguntza eta laguntza publiko guztien deialdiak argitaratuko dituen.

BEDERATZIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola onartutako aurrekontuaren araberrako kudeaketa ekonomikoa garatzea, bere eskumenerako mugen barruan gastuak xedatzea.

Halaber, eskumen hori 2023/1718 dekretuaren bidez, arloko zinegotzi delegatuari eskuordetzen zaio.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENENA.- Dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea, testu honen arabera:

Oinarri arautzaileak dirulaguntza honetarako: Negozio berriak sustatzea (EKIN)

1. Dirulaguntzaren xedearen definizioa

Oinarri hauen xedea da arautzea Tolosako hiri-ekonomiako sektoreren batean enpresa-ekimen bat abiarazten duten pertsoneri edo entitateei dirulaguntzak lehia bidezko konkurrentziaren arabera emateko modua.

2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea

Dirulaguntza-lerro hau Tolosako Udalaren 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago. Osoko Bilkurak onartu zuen Plan hori 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023ko otsailaren 1ekoa).

3. Pertsona edo entitate onuradunak

Pertsona edo entitate onuradun (aurrerantzean, onuraduna) izan ahalko dira pertsona fisikoak (norbere kontura aritzen diren langileak edo autonomoak), pertsona juridikoak (edozein dutela ere izaera juridikoa) eta ondasun-erkidegoak, oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. Pertsona edo entitate onuradunek dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak

Hona hemen onuradunak bete beharreko baldintza orokorrak:



1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
2. Betearazte-aldian Tolosako Udalarekin zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda.
3. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean.
4. Ez izatea administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldian berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere.
5. Ez egitea emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

Hona hemen onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:

- a) Diruz lagundutako jarduerak bat etorri behar du haren xede edo helburu sozialekin.
- b) Jarduera aurretiazko komunikazioa edo titulartasun aldaketa Tolosako Udalean aurkeztuta izatea. Hau ofizioz kontsultatuko da.
- c) Ekintzaile berrien ezaugarriak eta jarduerari dagokienez:
 - Enpresa-ekimen berria hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismoa.
 - Txikizkako jarduera bat izango da, kaleran bertan kokatutakoa, azken bezeroarekin edo udalerriko herritarrekin harreman zuzena duena.
 - Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.
 - Bideragarritasun-plan bat garatzea, Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzailetza Sailak oniritzia emanda.
 - Azken 60 hilabeteen aurretik Tolosako Udalaren aldetik helburu bererako edo antzekorako dirulaguntzarik jaso ez izana. Baldintza hori pertsona juridikoari eta hura osatzen duten pertsona bakoitzari dagokio.
 - Ekintzailea ez izatea saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko



edo juridikoaren bazkide edo partaide.

- Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza-ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna izanez gero, laguntza emateko, kasu bakoitza banan-banan aztertuko da, eta, nolanahi ere, arrazoi justifikatua beharko da.
- Jarduerak ezingo dira kokatu honako hauetan:
 - Tolosako Alde Zaharreko Birgaitze Plan Berezian aurreikusitako ekintza isolatuaren objektu izateagatik ordenazioz kanpokotzat deklaraturako eraikinetan.
 - Aurri-egoeran dauden eraikinetan.
- Kontserbazio-egoerarengatik eta bizigarritasun-baldintzengatik eraikina finkatzea egokia ez dela ebazten den eraikinetan.

d) Udalerrri berean aurretik negozioak abian dituzten ekintzaileei dagokienez:

- Izen berria izatea.
- Izaera juridikoa ez izatea pertsona ekintzaileak sustatutako aurreko negozioaren izaera juridikoaren berdina.
- Beste leku batean kokatzea.
- Gutxienez lanaldi osoko edo partzialeko lanpostu bat sortzea.
- Aurretiazko negozioei abian eustea.
- Artikulu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.

e) Dirulaguntza birgaitze-gastuetarako edo eraberritze-gastuetarako bada:

- Obra lizentzia izatea edo obraren aurre-komunikazioa Tolosako Udalean aurkeztuta izatea. Hau ofizioz kontsultatuko da.
- Obra amaierako ziurtagiria Tolosako Udalean aurkeztuta izatea hala badagokio. Hau ofizioz kontsultatuko da.

5. Dirulaguntzak emateko prozedura

1. Lehia bidezko prozedura erabiliko da deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.
2. Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.
3. Prozedura honen bidez, dirulaguntzak emateko, oinarri hauetako 11. artikuluan ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira aurkeztutako eskaerak.

6. Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian ezarritako epearen barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.



2. Hona hemen diruz lagun daitezkeen gastuak:

- Tolosako herrian enpresa ekimena garatuko den lokalaren alokairu-gastuak.
- Tolosako herrian enpresa ekimena garatuko den lokalaren erosketa-gastuak.
- Birgaitze-gastuak edo eraberritze-gastuak.

Orokorrean onartuko dira merkataritza establezimenduaren barrualdea edota kanpoaldea moldatzeko, berritzeko edo handitzeko instalazioak eta obrak, baita oztopo arkitektonikoak ezabatze egingako eraberritzeak ere, mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko helburua badute.

Enpresa ekimena Tolosako Alde Zaharrean kokatuz gero, bateragarriak izango dira birgaitzeko eta alokairu edo erosketa gastuetarako emandako dirulaguntzak.

Dauden negozioen lekualdaketak laguntza hauen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira.

7. Eskaerak aurkezteko modua eta lekua

1. Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko dira.
2. Pertsona fisikoek eskaerak eta gainerako dokumentazioa Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dituzte (<https://udala.tolosa.eus/eu>), tramiteen ataritik dagokion dirulaguntza-lerrora sartuta. Bestela, aurrez aurre aurkez ditzakete, herritarrei arreta eskaintzeko bulegora etorruta (UDATE, Plaza Zaharra 6B), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere.
3. Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek (ondasun-erkidegoak barne) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluetan zehaztutako beste batzuek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

8. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan sartu, eta hortik, dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta eskura daiteke:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU071127247>

Entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.



Eskaera-orrian, hauek adierazi behar dira:

- a) Erantzukizunpeko adierazpena, aplikatzekoa den araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela adierazten duena.
- a) Erantzukizunpeko adierazpena, beste sail, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, jarduera edo helburu bererako eman zaizkionak jasotzen dituen.
2. Ordezkaritza agiria, hala badagokio, eta ordezkari hori egiaztatzen duen dokumentazioa.
3. Ondasun-erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eratze-eskrituraren edo -agiriaren fotokopia, eta, hala badagokio, arautzen duten estatutuena.
4. Negozio-plana/bideragarritasun-plana, Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzailletza Sailak oniritzia emanda, aurrekontu edo jarduera garatzean sortzen diren gastuen zerrenda jasota.

Interesdunak ez du zertan bideragarritasun-azterketa Tolosaldea Garatzen garapen-agentziarekin egin, baina azken horrek dokumentua ontzat eman beharko du 13. artikuluan jasotzen den batzorde teknikora eraman aurretik.

5. Egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen *Irizpideen baloraziorako agiria*.
 - a) Adierazitako alderdi horiek frogatzeko, fakturen eta froga-balio baliokidea edo merkataritzako trafiko juridikoan eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak aurkeztu beharko dira, eta egindako ordainketen egiaztagiria ere aurkeztu beharko dira.
 - b) Halaber, kasu bakoitzean, *Irizpideen baloraziorako agiria* eranskinean adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.
6. Dirulaguntza alokairu-gastuetarako bada:
 - a) Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua.
7. Dirulaguntza erosketa-gastuetarako bada:
 - a) Bi alderdiek sinatutako eskuratze-eskriturak.
 - b) Banku-transferentziaren egiaztagiria, eskuratze prezioa osorik edo zati batean ordaindu dela egiaztatzen duela.
 - c) Maileguaren kasuan, hipoteka-maileguaren eskritura publikoa edo, hala badagokio, mailegua formalizatu izanaren egiaztagiria.



Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:

- a) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria.
- a) Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria.
- b) Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren ziurtagiria (JEZ).
- c) Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.
- d) Jarduera aurretiazko komunikazioa edo titulartasun aldaketa eta dokumentu hori Tolosako Udalean aurkeztu izanaren frogagiria.
- e) Obra lizentzia edo obraren aurre-komunikazio agiria eta azken hau Tolosako Udalean aurkeztu izanaren frogagiria; edo/eta obra amaierako ziurtagiria eta hau Tolosako Udalean aurkeztu izanaren frogagiria.

f)

9. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.

Ondorio horietarako, pertsona edo erakunde interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, betiere 5 urte baino gehiago igaro ez badira dagokien prozedura amaitu zenetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.3 artikuluen arabera, eta organo instrukzio-egileak eskatu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago pertsonaren/erakundearen berariazko aurkakotasuna, edo aplikatzekoa den lege bereziak berariazko adostasuna eskatzen badu.

Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administrazioak eginiko dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez. NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztiek erabiltzen duten plataforma da, datu elektronikoak administrazio batzuen eta besteen artean partekatzeko nodo autonomikoa, hain zuzen.

Pertsona/entitate eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak.

Ildo horretan, dirulaguntza lerro honetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- IGAERI BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.
- Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.
- Eusko Jaurlaritzari kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari jarduera Ekonomikoaren gaineko zergaren ziurtagiria



(JEZ).

- Nortasun-datuen kontsulta Poliziaren Zuzendaritza Nagusian.
- Jarduera aurretiazko komunikazioa edo titulartasun aldaketa egin dagoen egiaztagiria Tolosako Udalari.
- Obra lizentzia edo obraren aurre-komunikazio agiria aurkeztu izanaren frogagiria; edo/eta obra amaierako ziurtagiria Tolosako Udalari.

Salbuespenez, instrukzio-organoak ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio pertsona edo entitate eskatzaileari aurkez ditzala.

Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia.

10. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria

Prozedura hasteko eskaeran edo justifikazioan ez badira betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, adieraziko zaio, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, ebazpena emango da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta.

11. Balorazio-irizpideak eta puntuazioak

Proiektuek, gehienez, 85 puntu eskuratu ahal izango dituzte, irizpide hauen arabera:

- Jardueraren presentzia digitala: gehienez, 10 puntu.
- Proiektuaren izaera estrategikoa: gehienez, 5 puntu.
- Eskainitako produktu eta zerbitzuen ingurumen-ikuspegia: gehienez, 25 puntu.
- Talde sustatzailean, gutxienez kide batek 31 urte baino gutxiago izatea: 5 puntu.
- Enplegua sortzea: gehienez, 10 puntu.
- Negozioan euskararen erabilera txertatzea: gehienez, 5 puntu.
- 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartzen du emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina Legegintzako Dekretu horren 23.3.b) artikuluan ezarritakoa betez, talde sustatzailean, gutxienez partaideen erdia emakumea izatea: 5 puntu.
- Tolosako Alde Zaharrean kokatzea: 20 puntu.
- Tolosako Alde Zaharretik kanpo kokatzea: 10 puntu.

Proiektuek, dirulaguntza eskuratu ahal izateko, gutxienez 30 puntu eskuratu beharko dituzte.



Dirulaguntza jasotzeko hurrenkera lortutako puntuen arabera izango da.

Berdinketa kasuan, dirulaguntza eskaeraren hurrenkera hartuko da kontuan. Tolosako Udaleko sarrera erregistroko data hartuko da aintzat horretarako.

11. Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak

- a) Jardueraren presentzia digitala:
 - Webgunea, euskaraz izatea: 3 puntu.
 - Sare sozialak, euskaraz erabiltzea: 3 puntu.
 - Online denda, euskaraz izatea: 4 puntu.
- b) Proiektuaren izaera estrategikoa:
 - Lehen sektorearekin zerikusia badu: 5 puntu.
 - Zahartze aktiboarekin edo zilarrezko ekonomiarekin zerikusia badu: 4 puntu.
 - Kulturarekin zerikusia badu: 4 puntu.
 - Zerbitzuak eskaintzen baditu: 3 puntu.
- c) Eskaintako produktu eta zerbitzuen ingurumen-ikuspegia:
 - Ekonomia zirkularreko jarduera/produktu jasagarrien salmenta:
 - o Hornitzaileak, gehienez ere, 100 km-ra kokatzen badira 5 puntu.
 - Energia-kudeaketa eraginkorra bermatzen duten neurriak:
 - o Lokalean instalatutako argiztapenaren gutxienez % 80 LED motakoa bada: 5 puntu.
 - o Lokalak efizientzia energetikoaren ziurtagiria badu: 5 puntu.
 - o Lokalean instalatutako ekipamenduek eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria badute: 4 puntu.
 - o Tenporizadoreak edo argi-sentsoreak instalatuta badaude: 3 puntu.
 - Hondakinak minimizatzeko edo eraginkortasunez kudeatzeko sistemak:
 - o Ez bada plastikorik erabiltzen: 1 puntu.
 - o Sortutako hondakinei irtenbidea ematen bazaie: 1 puntu.
 - o Jarduerarako erabiltzen den materiala birziklatua bada: 1 puntu.
- e) Enplegua sortzea:
 - Langile bat lanaldi osorako kontratatuta izateagatik: 5 puntu.
 - Bi langile edo gehiago lanaldi osorako kontratatuta izateagatik: 10 puntu.
- f) Negozioan euskararen erabilera txertatzea:
 - Bezerearekin harremanak euskaraz izateko aukera bermatzea (zerbitzua emango duten langileen hizkuntza-gaitasuna). Hau da, establezimendua irekita dagoenean, une oro bezeroei euskaraz egiteko eta euskaraz ulertuak izateko aukera eman beharko da. Udalak establezimendu eskatzaileek baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko establezimenduekin bisita bat hitzartuko du. Bisita hori egitetik salbuetsita egongo dira: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko



Bateratuko B2 hizkuntza-gaitasun mailaren pareko euskararen jakite-maila egiaztatzen dutenak, edo/eta Bara-barra ziurtagiria, Bikain ziurtagiria edo Bai Euskarari ziurtagiria duten establezimenduak: 2 puntu.

- Lokalaren hizkuntza-paisaia euskara hutsez izatea (kartelak, oharrak, karta...): 3 puntu.

Eskatzaile bakoitzari eman dakioken dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da, BEZa sartu gabe:

- a) Enpresa-ekimena garatuko den lokala birgaitzeko edo eraberritzeko: diruz lagundu daitekeen gastuaren %20, dirulaguntzaren muga 6.000,00 eurokoa izanik.

Gauzatutako obra Udalak emandako baimenean oinarrituko da. Hau da, bertan jasotakoa zehatz-mehatz bete beharko da.

Ez dira diruz laguntzeko moduko jarduketatzat hartuko ezkutuko jarduketak edo hirigintzako arau-haustea eragin dutenak. Ildo horretan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera ezkutuko jarduketak hautemanez gero (hau da, eskatutako hirigintzako administrazio-titulu legitimatzaileak gabe edo horiek alde batera utzita edo urratuta egindako urraketak), legezketasuna berrezartzeko dagokion espedienteak hasiko da, eta dirulaguntza ukatuko da.

- b) Alokairu-gastuetarako: eskatzaile bakoitzari, gehienez ere, 12 €/m² emango zaizkio, gehienez honako zenbateko hauekin, BEZa sartu gabe:

- Lehen urtean, hileko alokairu gastuaren % 75, gehienez ere 450€ hilean.
- Bigarren urtean, hileko alokairu gastuaren % 50, gehienez ere 300€ hilean.
- Hirugarren urtean, hileko alokairu gastuaren % 25, gehienez ere 150€ hilean.

Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak, guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00 €; bigarren urtean, 3.600,00 €; eta hirugarren urtean, 1.800,00 €, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu-gastuei dagokiena izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak sartu gabe). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, dirulaguntzaren oinarria kalkulatzeko, hori ere kontuan hartuko da.

- c) Erosketa-gastuetarako: lokala erosiz gero, metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko prezioa 1.000 €/m² izango da. Lokala erosteko dirulaguntza prezioaren % 10ekoa izango da, zergak alde batera utzita, eta, gehienez, 10.800 eurokoa.



Nolanahi ere, onuradun bakoitzeko emandako laguntzaren zenbateko osoa honela banatuko da: % 50 lehen urtean, % 30 bigarren urtean, eta % 20 hirugarren eta azken urtean.

Diru laguntzak irauten dituen 3 urteak zehazteko data hau izango da: alokairu edo erosketa kontratua sinatzen den eguna, baldin eta kontratu horretan ez bada ordainketak hasteko beste eperik zehazten. Kasu honetan azken hau hartuko da aintzat.

Laguntzaren eskatzaileak bere gain hartzen badu bi establezimendu (alokairuan edo erosita) dituen negozio bat, bigarren establezimenduaren laguntza % 50ekoa izango da, eta guztira, bigarren establezimendu horrengatik 5.400,00 € jaso ahal izango ditu laguntza jasotzen duen hiru urteetan. Kasu horretan, establezimendu bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga banaka kalkulatu da, aurrez ezarritako baldintzetan.

Nolanahi ere, laguntzak aurrekontua erabilgarri dagoen heinean emango dira.

13. Pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak

- Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu –euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahoskoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.
- Diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan hizkera ez-sexista erabili beharko da. Ezingo da irudi diskriminatzaile edo genero-estereotipotik erabili, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta inklusioaren balioak dituen irudia sustatu beharko da.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortuz gero, horren berri eman beharko zaio dirulaguntza ematen duen organoari edo entitate laguntzaileari.
- Dirulaguntza birgaitze-gastuetarako edo eraberritze-gastuetarako bada:
 - o Jarduera Tolosako Alde Zaharreko lokal itxi batean egotea (Tolosako Hiri Antolamenduko «7.- Hirigune Historikoa» esparrua birgaitzeko Plan Bereziaren arabera).
 - o Tolosako Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak ezarritako araudia betetzea.
- Diruz lagundutako lokala hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik erabiliko da, eta laguntza jasotzen den bitartean, establezimendua zabalik egongo



da azken bezeroarentzat.

- Dirulaguntza lokala eskuratzeko edo birgaitzeko jasotzen bada, jakinarazitako jarduera garatzeko erabili beharko da, eta establezimendua azken bezeroarentzat zabalik eduki 5 urteko epean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.4 artikulua xedatzen duen moduan. Dirulaguntza alokairua finantzatzeko jasotzen bada, aldiz, gutxienez, urtebetekoa da epe hori.
- Onuradunak jarduera etetea erabakitzen badu, Udalari jakinaraziko dio. Bestela, eta ondorio horietarako, jarduera etenda dagoela ulertuko da establezimendua hilabete baino gehiagoz publikoarentzat itxita dagoenean, horretarako arrazoi justifikaturik ez badago behintzat.
- Oharrak, seinaleak, kartelak eta kanpoko gainerako komunikazio orokorrak (publizitatea, marketina eta ingurune digitala) eta barrualdeko komunikazio finko eta iraunkorrak gutxienez euskaraz egingo dira.
- Diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioak, publizitateak, irudiek edo materialek hizkera ez-sexista izan beharko dute, emakumeen irudi diskriminatzaileak edo estereotipo sexistak saihestu beharko dituzte, eta berdintasun-balioak dituen irudia sustatu beharko dute.
- Gastu bererako beste dirulaguntza edo laguntzarik jasoz gero, Udalari horren berri eman beharko zaio.
- Hondakinak gaika sailkatzea eta dagokien lekuan uztea, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen jarraibideak betez.
- EKIN programaren irudia lokalaren erakusleihoan jartzea, ikusteko moduan.
- Oro har, dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako beste edozein.

14. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, edozein dela ere haiek ematen dituen administrazioa, erakunde publiko nahiz pribatua, izan Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa

1. Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere haiek ematen dituen estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazioa edo erakunde publiko nahiz pribatua, eta hargatik eragotzi gabe horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketena.
2. Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrik, ez eta beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera ere.
3. Muga hori ez dela gainditu egiaztatzeko, diruz lagundutako gastu osoa justifikatu beharko da.
4. Proiektuaren edo jardueraren kostua baino gehiago finantzatzen bada, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, eta ordainketa-gutunak dagokion justifikazioari erantsi beharko dizkio.



Hala ere, Tolosako Udalak gehiegizko finantzaketa ikusten duenean, gehiegizko zati horren zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du, Udalak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

15. Dirulaguntza ordaintzea

a) Dirulaguntza birgaitze edo eraberritze-gastuetarako eskatu bada:

- Eskaerarekin batera obra lizentzia edo aurretiazko komunikazio eskaera aurkeztuz gero, ordainketa bi zatitan egin ahal izango da: ebazpenarekin batera, dirulaguntzaren % 70, baldin eta interesdunak eskaera-orrian ordainketa aurreratua eskatzen badu, eta betiere, justifikatzen badu behar duela finantzaketa hori proposatutako jarduerak egiteko. Gainerako % 30a, berriz, justifikaziorako agiriak aurkeztu ostean. Ordainketa aurreratua eskatzen ez badu, % 100 justifikaziorako agiriak aurkeztu ostean ordainduko zaio. Hau guztia organo eskudunak onartzen duenean.
- Eskaerarekin batera justifikaziorako agiriak aurkeztuz gero, dirulaguntzaren % 100 ordainduko da, organo eskudunak onartu ondoren.

b) Alokairu edo erosketa gastuetarako eskatu bada:

Dirulaguntza sei hilero ordainduko da, 3 urteko gehieneko epea bete arte, dagozkion egiaztagiria aurkeztu eta gero.

Egiaztagiria 16.klausulan adierazten den epean aurkeztu beharko dira.

16. Dirulaguntzaren justifikazioa

1. Onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen jarduerara; baita jarduerara horrek sortutako gastuak ere.
2. Justifikaziorako baliagarriak diren agiriak Udalaren egoitza elektronikoan eskura daitezke dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta: <https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU071127247>
3. Dirulaguntza alokairu gastuetarako edo erosketa gastuetarako denean, justifikazioa aurkezteko epea hau izango da:
 - Urtarriletik ekainera bitarteko gastuen justifikazioa uztailaren 1etik 31ra.
 - Uztailetik abendura bitarteko gastuen justifikazioa urtarrilaren 1etik 31ra.

Horrela egingo da 3 urteko epea bete arte.

Dirulaguntza birgaitze edo eraberritze gastuetarako denean, ebazpena jaso eta hilabeteko epean.

Ezarritako epea bete ondoren onuradunak dirulaguntza ez badu justifikatzen, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du, dagokion araudian xedatutakoaren



TOLOSAKO
UDALA

2025DO100005

arabera.

Gainera, onuradunak ez badu ezarritako epean justifikazio-kontua aurkezten, administrazio-organo eskudunak justifikazioa aurkezteko eskatuko dio 15 eguneko epean. Epe hori luzaezina izango da, eta hala egin ezean, onuradunak jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

Justifikazioa egiteko honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Dirulaguntza birgaitze-gastuetarako edo eraberritze-gastuetarako bada:

1. GAS dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoa eskuragarri). Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (xls.), sinadurarik gabe.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili bada, Tolosako Udalak, gastu horri dagokionez, zer ehuneko finantzatu duen adieraziko da.

Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastuen eta inbertsioen zerrenda diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da, izandako desbideratzeak adierazita.

Gastuaren zenbateko osoak diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostu osoa islatu beharko du.

2. Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; eta egindako ordainketen egiaztagiria ere aurkeztu beharko dira.

b) Dirulaguntza alokairu-gastuetarako bada:

1. Alokairuaren fakturak, dagozkien banku-ordainagiriarekin batera.

c) Dirulaguntza erosketa-gastuetarako bada:

1. Erosketa mailegu bidez egin bada: maileguaren kuota ordaindu izanaren ordainagiria ere aurkeztu beharko da.

Agiriak kontsultatzearen aurka egin bada:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu

ESKU69a5b603-1bcf-4164-8e2a-fe8b6b679bae



beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria.

- Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria.

17. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko ebazpena edo erabakia, onuradunak eskatuta, aldatu egin ahal izango da, baldin eta gerora sortutako eta aurreikusi ezin diren inguruabarrek dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badituzte, eta betiere, aldaketa horiek ez badituzte indargabetzen emandako dirulaguntzaren izaera eta helburuak, aldaketak ez badie hirugarren pertsonen edo entitateen eskubideei kalterik egiten, eta eskaera jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkezten bada.

18. Itzulketen araubidea

Organo eskudunak erabakitzen badu onuradunak aurrerakin gisa edo konturako ordainketa gisa jasotako zenbatekoa osorik edo partzialki itzuli behar duela, zenbateko hori itzuli egin beharko da, dagokion berandutze-interesa gehituta.

Horri dagokionez, Tolosako Udalaren Dirulaguntza Orokorraren VI. kapituluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan, haren Erregelamenduan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) eta indarrean dagoen gainerako araudian xedatutakoa aplikatuko da.

17. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea

Arau haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Honela sailkatuko dira:

- Arinak:
 - o Hondakinak gaika ez sailkatzea, eta ez uztea dagokien lekuan; alegia. Ez betetzea Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen jarraibideak.
 - o Ez jartzea Berriz Tolosa, Ekin eta Gune Biziak programen irudia lokalaren erakusleihoan.
 - o Ez jartzea, gutxienez euskaraz oharrak, seinaleak, kartelak eta kanpoko gainerako komunikazio orokorrak (publizitatea, marketina eta ingurune digitala) eta barruko komunikazio finko eta iraunkorrak.
 - o Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 56. artikuluan ezarritako arau-haustek.
- Larriak:
 - o Hizkuntza sexista, emakumeen irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexistak erabiltzea diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan.
 - o Udalari ez jakinaraztea gastu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso direla.
 - o Urte berean, gutxienez bi arau-hauste arin berriro egitea, ebazpen irmoz hala deklaratu bada.



- Arau-hauste larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 57. artikuluan daude jasota.
- Oso larriak:
 - Diruz lagundutako lokala ez erabiltzea hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik.
 - Udalari ez jakinaraztea onuradunak jarduera etetea erabaki duela, eta ez itzultzea etetearen unetik jasotako zenbatekoa.
 - Urte berean gutxienez bi arau-hauste larri berriro egitea, ebazpen irmoz hala deklaratu bada.
 - Arau-hauste oso larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 58. artikuluan jasotzen dira.

Adierazitako arau-hausteei honako zehapen hauek dagozkie:

- Zehapenak arau-hauste arinengatik: arau-hauste arin bakoitzari 75 euro eta 750 euro arteko isuna ezarriko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 61. artikuluan aurreikusitako zehapenatarako xedatutakoa salbu.
- Zehapenak arau-hauste larriengatik: arau-hauste larri bakoitzari 750 eta 1.500 euro arteko isuna ezarriko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 62. artikuluan aurreikusitako zehapenatarako xedatutakoa salbu.
- Zehapenak arau-hauste oso larriengatik: arau-hauste oso larri bakoitzari 1.500 euro eta 3.000 euro arteko isuna ezarriko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 63. artikuluan aurreikusitako zehapenatarako xedatutakoa salbu.

20. Aplikatu beharreko araudia

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak honako arau-xedapen hauetan ezarritakora egokituko dira:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeakoa.
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.
- 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.



BIGARRENA.- Dirulaguntzen deialdia onartzea, honako edukiarekin:

I. ERANSKINA: Deialdia

1. Xedea

Deialdi honen xedea da dirulaguntza hauen berri ematea: Tolosako hiri-ekonomiako sektorearen batean enpresa-ekimen bat abiarazten duten pertsonen edo entitateen lehia bidezko konkurrentziaren arabera ematen zaizkien dirulaguntzak.

2. Dirulaguntza egozten zaien kreditua eta aurrekontu-partida

Deialdi honetara bideratu den kreditua ondorengo da:

- Lokalaren alokairu gastuetarako hirurogei mila (60.000,00) euro, 1100.471.01.431.00 2025eko aurrekontu-partidaren kargura.
- Lokalaren erosketak eta eraberritze edo birgaitze gastuetarako hogeita mila (20.000) euro, 1100.771.01.431.00 2025eko aurrekontu-partidaren kargura.

Beharrezko balitz, eta betiere 2025 urteko Berriz Tolosako dirulaguntza deialdiko 1100.471.02.431.00 partidaren, eta behin eskaera guztiak aztertu ostean, finantzaketa soberan geratuz gero, 25.000,00 eurora bitarteko zenbateko gehigarria onartzeko aukera egongo da EKIN programako alokairurako dirulaguntzetarako.

Aldi berean, beharrezko balitz, eta betiere 2025 urteko Berriz Tolosako dirulaguntza deialdiko 1100.771.01.431.00 partidaren, eta behin eskaera guztiak aztertu ostean, finantzaketa soberan geratuz gero, 20.000,00 eurora bitarteko zenbateko gehigarria onartzeko aukera egongo da EKIN programako erosketak eta birgaitze dirulaguntzetarako.

Aipatutako kreditu gehigarria erabiltzearen ondorioz ez da deialdia berriro argitaratu behar.

3. Pertsona edo entitate onuradunek bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatze modua

Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 4. artikuluan xedaturikoa izango da.

4. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta irailak 20an amaituko da.

5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 8. artikuluan xedaturikoa izango da.

6. Balorazio-irizpideak

Deialdi honekin batera argitaratzen diren oinarri orokorren 11. artikuluan xedaturikoa



izango da.

7. Proiektuak egikaritzeko epea

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2024ko irailaren 1etik eskaerak aurkezteko epea amaitzen den bitartean burututakoak izango dira.

Dirulaguntza alokairu edo erosketarako bada, aipatutako epean sinatutako alokairu-kontratuak eta erosketa-eskiturak hartuko dira kontuan.

Dirulaguntza eraberritze edo birgaitze lanetarako bada, udal lizentziak, obren aurre-komunikazioak edo obra amaierako proiektuak epe horren baitan eskuratu edo aurkeztutakoak izan beharko dute.

8. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak

Turismoa, Merkataritza eta Azokak Azpisailak sustatuko du prozeduraren instrukzioa.

Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda.

Dirulaguntza emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan.

Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean:

- Kontu-hartzailea edo teknikaria.
- Saileko teknikaria.
- Saileko zinegotzia.
- Idazkarizako teknikaria.

Instrukzio-organoak, espediente eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak ebatz dezan.

9. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

10. Ebazpenaren jakinarazpena

Interesdunari ebazpena jakinaraziko zaio.

11. Dirulaguntza aldatzea

Deialdi honetan argitaratzen diren oinarri orokorren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

12. Helegiteen araubidea

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da. Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

HIRUGARRENA.- Erabakia dirulaguntzen datu-base nazionalen (BDSNen), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Tolosako Udalaren web orrian eta Gardentasun Atarian argitaratzea.

Ebazpen hauek finkoak dira eta amaiera ematen diote administrazio-bideari. Erabakien kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakien aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabakiak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki hauek argitaratu eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.



2025DO100005

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, udal idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

Aitor Aguirresarobe Murgui

UDAL IDAZKARIA

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025DO100005-Dek_oinarriak onartzea/Decreto (TOLOSAKO UDALA)